Beste aukera pare bat Aduna herrian aurkitzen dira, biztanleko sagardo sagar gehien duen herrian. Sagastiz inguratuta, Aburuz eta Zabala sagardotegiak aurkitzen dira. Oso hurbil daude biak eta kalitatezko sagardoa eskaintzen dute (Zabala hiru urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Sagardo Txapelketan garaile izan da).

Itsasoari begira, Donostiako inguru natural paregabean, euskal sagardoa itsasoari begira dastatzeko aukera dago Calonge sagardotegian. Bertako sagardo naturala eta itsasoa lotuta, Igeldoko paraje ederrean.

Gipuzkoa erdian, Azpeitia herrian, Izarraitz eta Ernio mendien magalean, Añota sagardotegia dago. Leku lasai eta ederra bisitatzeko duenarentzat, mendi, zela, sagasti eta baserriez beteriko paisaiak ezagutuko dituzte bertako sagardoa dastatzearrekin batera.

Sagardoaren mundua ezagutzera datozenentzako bisita gidatuak, dastatze saio komentatuak eta «maridaje» dastatze-saioak eskaintzen ditu Satxotak, enologo batek gidatuta. Aian dago, Orio eta Zarautz ondoan.

Sagardotegi asko daude Euskal Herrian historia luze eta aberatsa dutenak beren lau hornimen artean, besteak beste Hernaniko Iparragirre, Irungo Ola eta Astigarragako Bereziartua eta Petritegi. Laurek urte asko daramatzate sagardogintzan.

XVII. mendeko idatzietan ematen da Iparragirre baserridolorearen berri, Osiñaga auzoan. Urumea ibaitik gertu eta sagardogintza aurkitzen da.

XIII. mendeko burdinola berri-tu eta sagardotegi izateko egokitua dagoen Olak bere sagardotegia barrutik eta kanpotik ezagutzera gonbidatzen zaitu. Gipuzkoako azken txapelketan garaile izan da. Irungo Meaka auzoan aurkitzen da eraikin ikusgarri hau. Aiako Harriak

parke naturalaren barnean dago eta Hirugurutzetako labeak ezagutzeko aukera ere badago.

1870. urtetik erreferentziako sagardotegia da Bereziartua, Astigarragan, sagardogintzaren bihotzean kokatua. Upategi eder bat bisitatu ahal izango du bertaratzen denak.

Astigarragan aurkitzen da Petritegi sagardotegia ere. XVI. mendean eraikitako Tolare sagardotegiko bosgarren belarrialdia, Otaño sendiak, darama gaur egun sagardotegiko martxa. Ekainean hasi ziren bi-

sita gidatuak egiten. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egiten dituzte.

SAGARDOAREN PROZESUA

Urteetako lanaren emaitza ezagutzera gonbidatzen dute, bisita gidatu ezberdinetan. Petritegi aitzindari omen da bisita gidatu hauetan, ekainean hasi ziren. Hilabete hauetan jende asko hurbildu da sagardoa egiteko prozesua ezagutzera eta sagardotegi-koak pozik daude erantzunarekin. Sei gunetan banatzen da sagardotegi honetako bisita. Ha-

sieran sagastiak erakusten dituzte. Gero sagarraren bilketa nola den eta ondoren sagardoaren prozesua, tresneria eta muztioa lortzeko prentsa. Ikus-entzunezko baten bitartez azken 300 urte-etako bilakaera eta baserriaren historia ere erakusten dute.

Upeltegaia ikusi eta dastatze saio batekin amaitzen da bisita gidatua. Hiru bisita posible daude: oinarritzkoa 8 euro; Gourmet bisita (dastatze oparagoa) 12 euro eta Premium bisita (oinarritzko bisita gehi sagardotegiko menua), 35 euro.

www.txogitxu.com

TXOTX BERRI ON

On egin!

SAGARDOTEGI HOBERENETAN GAUDE



Entorno de la ermita de Santiagomendi, por donde discurre la ruta que permite conocer la cultura de la sidra en Astigarraga.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

• PASEOS ENTRE AROMAS DE SIDRA •••

Santiagomendiko Sagardo Bidea, una invitación a conocer la historia de Astigarraga y la cultura de la sidra

Es uno de los paseos temáticos organizados en torno al pasado y presente sidrero de esta zona



Sagardo botila
urte osoan salgai

LARRE-GAIN

Tolare - Sagardotegia



Larre-Gain Baserria

Tel. 943 55 58 46 • 616287867

EREÑOTZU • HERNANI

Tanto Astigarraga como Hernani han preparado paseos temáticos por los alrededores de estas localidades, dando especial protagonismo a su pasado y presente sidrero. En el caso de Astigarraga, se trata de una ruta con ocho estaciones temáticas que discurre a través de Santiagomendi, el emblemático monte que puede considerarse cuna de la localidad.

"Santiagomendiko Sagardo Bidea" es una ruta que permite acercarse a la cultura de la sidra y a la curiosa y sorprendente historia de Astigarraga de una manera divertida y participativa. Es un paseo a través del monte Santiagomendi, un espacio rural de gran belleza desde el que se domina una amplia panorámica.

«Este paseo temático constituye un nuevo atractivo dentro de la actual oferta de la cultura de la sidra vasca que engloba la marca Sagardoaren Lurraldea y que agrupa todas aquellas experiencias turísticas, culturales y de ocio vinculadas a la cultura de la sidra vasca. Entre ellas están la visita a Sagardoetxea-Museo de la Sidra Vasca, las comidas y cenas en sidrerías, el ritual del txotx, la experiencia "La sidra y el mar", o la ruta gastronómica de la sidra y el queso, entre otras», informan los responsables de Sagardoetxea.

El paseo consta de ocho estaciones y el punto de inicio es Sagardoetxea. La primera estación, bajo la denominación de

Sidra y Poder, recoge aspectos destacados de la historia de Astigarraga. Hasta 1840 coexistían en esta localidad dos territorios y núcleos de población con entidad propia. Uno de ellos era la aldea de Santiagomendi, eminentemente rural y con caseríos dispersos, un territorio que puede entenderse como el que conformaba la primitiva localidad de Astigarraga, y el otro eran las tierras controladas por el linaje de los Murguía, con sus propiedades y poblaciones de Murguía y Ergobia.

La convivencia entre las poblaciones de ambos territorios no estuvo exenta de dificultades y problemas que, finalmente, se apaciguaron en 1382 tras la firma de un convenio o contrato por el que los Murguía darían protección a los caseríos de Santiagomendi a cambio del pago de un tributo anual y una serie de prestaciones.

La segunda parada del itinerario está dedicada a los caseríos de Santiagomendi. En los siglos XVI y XVII los caseríos de esa aldea disponían en su interior de



Los paneles instalados en la ruta ofrecen amplia información del mundo de la sidra, y

grandes lagares de madera que tenían una doble función: sostenimiento de la cubierta y elaboración de sidra. En realidad, como en el caso de Igartubeiti en Ezkio-Itxaso, se trataba de lagares de sidra en los que también había espacios habilitados para que pudiesen morar personas.

La firma del contrato antes citado con los Murguía significó para sus moradores el inicio de una época de prosperidad que se prolongó hasta comienzos del siglo XVII. Les permitió poder transitar libremente por todos los caminos de las tierras controladas por los Murguía y acceder a los puertos fluviales del Urumea, a través del cual se transportaban todo tipo de mercancías, suprimiendo las mayores trabas que hasta entonces tenían para la comercialización de sus productos.

LA SIDRA Y EL MAR

La relación de la sidra con el mar es el tema de la tercera parada en el paseo. La gran demanda de sidra para el avituallamiento de los barcos que iban a Terranova a cazar ballenas y a pescar bacalao, permitió vivir unos años de bonanza a los caseríos de Santiagomendi en el siglo XVI. La travesía y estancia en aquellos mares y tierras lejanas duraba ocho meses, y durante ese tiempo cada marinero consumía unos dos litros de sidra al día, una bebida fresca, fuente de vitamina C y antídoto contra el escorbuto.

Al llegar a la cima de Santiagomendi, donde se sitúa la ermita, se encuentra la cuarta estación. Situada en el camino de Santiago, de ahí su nombre, la creencia popular atribuyó el hallazgo de fósiles, conchas y bordones al paso del apóstol por ese lugar, y la ermita se convirtió así en uno de los lugares de culto más importantes de la ruta jacobea en Gipuzkoa. Uno de los elementos del escudo de la localidad es la concha que utilizaban los peregrinos.

De la bonanza se pasó al declive de la sidra a partir del siglo XVII. La llegada del maíz de tierras americanas revolucionó la agricultura. Ese maíz se convirtió en un alimento básico y su cultivo desplazó a los manzanos, que se dejaron de plantar. Ese declive es el que recuerda la quinta estación, un declive acentuado además por la mejora de las comunicaciones que posibilitaron la entrada del vino en las costumbres de consumo de la población, y porque a partir de 1630 también descendieron las expediciones pesqueras a Terranova en busca de ballenas y bacalao.

El consumo local y familiar de sidra se mantuvo en Astigarraga. A esa superación del declive y, de alguna manera, al renacimiento de la sidra, se dedica la sexta estación del paseo. Esa localidad resistió a la nueva situación y siguió elaborando sidra. A principios del XIX había nada menos que 40 sidrerías. Fue un nuevo concepto de sidrería, porque se convirtieron en lugares de ocio y diversión. Servían desde la barrica vaso a vaso, en medio de un ambiente de bertsolarismo y de juegos de toca y bolos.

Tras el alzamiento fascista de 1936 y el final del conflicto bélico, la sidra comenzó a conocer una nueva situación. Muchos manzanales desaparecieron, las tabernas comenzaron a vender vino, cerveza y bebidas gaseosas. La sidra casi desapareció, aunque mantuvo uno de sus reducidos en las sociedades gastronómicas de la capital guipuzcoana. Sus socios iban directamente a los productores a probar y comprar la sidra embotellada, y así, al popularizarse esa forma de cata y consumo, surgió el txotx a mediados de los 60 del siglo pasado. A ese rito se dedica la séptima parada del paseo.

Con la estación dedicada a la actualidad y futuro de la sidra culmina el recorrido por Santiagomendi.



Hernani es una de las localidades con mayor oferta de sidrerías.

Juan Carlos RUIZ | ARGAKZI PRESS

● La Ruta de las Sidrerías, una de las ofertas de Hernani

Por su parte, Hernani amplía su oferta turística con la preparación y difusión de once recorridos a pie por zonas rurales, uno de ellos dedicado específicamente a las sidrerías.

Se han editado unos dípticos con detalladas descripciones de cada uno de los recorridos circulares. Entre los datos figuran las distancias kilométricas, desniveles, duración de cada paseo, datos de interés de diferentes puntos del recorrido, señalización y aspectos más importantes del patrimonio de la localidad (montes, bosques, toponimia, monolitos, restos megalíticos e históricos, etc).

El trabajo ha sido realizado conjuntamente por el Ayuntamiento de Hernani, Aranzadi y

el grupo de montaña local Mendiriz Mendi. Los recorridos y dípticos descriptivos se diferencian por colores, y entre los azules hay uno que recoge una Ruta de Sidrerías.

Aunque no están todos los establecimientos sidrerías de la localidad, -son doce-, el recorrido propuesto sí recoge los que están próximos al río Urumea, en el barrio de Osinaga. Este paseo se puede realizar a pie o en bicicleta de montaña y tiene una distancia total de 9 km, con un desnivel de 150 metros, pasando junto a seis de las sidrerías de la localidad, razón por la que este recorrido ha sido denominado Sagardotegiak.



además desde lugares con amplias panorámicas.

Andoni CANELLADA | ARGAKZI PRESS

Marindegi Auzoa, 29
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 58 51 - zelaia@zelaia.e

• BIZKAIA •••

Denboraldi ona Bizkaian, bai bildutako sagar kopuruari, bai zukuaren kalitateari dagokionez

Bizkaiko Sagardoa elkartearen barruan dauden sagardogileek herrialdeko fruituak besterik ez dute erabiltzen



Jose Antonio Zamalloa, Bizkaiko Sagardoa elkartearen presidentea. Bere ustez, gorputz handiko sagardoa izango da aurtengoa.

Jon HERNÁNDEZ | ARGAZKI PRESS

Bizkaian, Bizkaiko sagardoa. Halaxe dio herrialde horretako sagardogileen elkartearen leloak, eta ahalegin guztiak egiten dituzte urtero hori betetzeko. Bizkaiko sagarraren eta sagardoaren kultura propioa sustatzea da elkartearen kideen helburu nagusia. Gero eta babes zabalagoa eta ospe hobia

duen sagardoaren kultura. Gaur egun, honako hauek dira Bizkaiko sagardo naturala eskaintzen duten sagardotegiak: Laka Erdi (Berriatuko Merelludi auzoan), Erdikoetxe (Lezamako Goitioztan), Axpe (Markina-Xemeinen), Sebastianeko (Mendexan), Isasi (Iurretan), Etxebarría (Gatikako Txone-Barri base-rrian), Malgarrazaga (Gatikan), Kandi (Muxikako Ametsebarri

auzoan), Laneko (Gizaburuagan) eta Uxarte (Zornotzan). Azken sagardotegi horren jabea da Jose Antonio Zamalloa, Bizkaiko Sagardoa elkartearen presidentea.

Aurtengo uzta, Bizkaian, nahiko ona izan omen da, bai bildutako sagar kopuruari dagokionez, bai hortik ateratako sagardoaren kalitateari dagokionez. Adituen arabera, garraiztasun puntu bat izango du zukuak. «Karakter» handikoa izango da, antza. «Ez dut halako zehaztasunetan sartzea gustuko»-esan digu Zamalloak-, baina nire ustez, aurtengo sagardoak badu bereizitasun bat: gorputz handiko edaria da, tanino asko baititu. Orokorrean ari naiz, dena den; jakin badakitzan tokian tokiko ezberdintasunak ere izango direla».

Aurtengo bereizitasun horren arrazoia eguraldia izan liteke, beste zenbait faktoreen artean. «Kontuan izan behar dugu, adibidez, noiz egin zen sagardo hau, eta zein baldintzat. Abuztuko lehorteen ondorioz, sagarra erabat umotu gabe iritsi zen ekoizpen kanpaina. Urria-

ren hasierako sagarrak berdeak ziren oraindik, eta zuku gutxi-koak», nabarmendu du Bizkaiko Sagardoa elkartearen presidentek. Oro har, indar handia eman omen dio ezaugarri horrek sagardoari, eta askorentzat, oso positiboa da hori.

«Niretzat, sagardoa garraiztasun edo sendagoa izatea gauza ona da -adierazi du sagardogile zornotzarrak-, baina hori norberaren gustuen arabera da. Batzuek nahiago izaten dute sagardo arinagoa, zapore gutxiago duena. Dena den, bakoitzak dastatutzala aurtengo sagardo ezberdinak, eta aukeratu dezala gurago duena».

BEHAR ADINA SAGAR

Edariaren kalitatea, oro har, ona izango dela dirudi, eta sagar kopuruaren aldetik ere, txukun aritu direla esan digu Zamalloak: «Uzta dezente ona izan da. Bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, sagar askotxo izan dugu».

Bizkaiko sagardogileek 300.000 litro inguru ekoizten dituzte urteko, 400.000 kilo sagar erabilia. Elkartearen bilduta-

koek bertako sagarra erabiltzen dute sagardoa egiteko, eta gaur egun Eusko Labelen sartuta daude gehientsuak. «Badakigu beste hainbat tokitan, uzta urria izan denean, kanpoko sagarrak erosten dituztela, baina guk ez dugu halakorik egiten. Bizkaian, ekoizpenak ez dira horren handiak, eta uztarik okerrenetan ere, nahikoa izaten dugu bertoko sagarrekin. Bestalde, Eusko Label bermea daukagu zenbait sagardogilek, eta horrek esan nahi du gure produktuak %100ean bertokoa izan behar duela. Ez dakit zer gertatuko den hemendik hainbat urtera, ekoizpena asko handitzen bada; baina gure helburua Bizkaiko sagardoa sustatzea da, eta horren alde egiten dugu gure elkartearen», azpimarratu digu elkartearen presidentek. Hala, sagardogile batek bere sailean nahikoa sagar jasotzen ez badu urte batean, Bizkaiko beste ekoizle bati erosi ohi dio, jatorriaren bermea mantentzeko.

Duela hogeita hamar urte ekin zioten Bizkaiko Sagardoa elkarteak eta Lakuako Nekazari-



**BASERRIKO OKELA ETA OILASKOA
SAGARDOA URTE OSOAN TXOTX-etik**

**BENETAKO SAGARDOATEGIA
Deitu, etorri eta egiaztatu.**

Montoria, 6. 48340 ZORNOTZA • Telf. 94 630 88 15 • www.uxarte.com



Zamalloak urte asko darama sagardogintzaren prozesuan inplikaturak. Irudi honetan Uxarte sagardotegian (Zornotzan) agertzen da.

Jon HERNANDEZ | ARGAZKI PRESS

tza Sailak bertako sagar motak berreskuratzeko lanari. Zallako Frutikultura Laborategia izan da lan horren lekuko eta ardatz, 1985ean eta 2000an Bizkaiko baserrietatik hainbat lagin jaso baitzituzten. Egun, Eusko Labe-lan barruan, erabil ditzaketen sagar espezieen zerrenda zehatza dute; besteak beste, astarbe, bizkai sagarra, dominixe, errezi-la, gezamina, goikoetxe, ibarra, mokotea, mozolola, orkola, potrokilola, txalaka, ugarte, urdin edo urtebi.

Sagardogintzaren funtsa eta oinarria betikoak izanda ere, bada azken hiru hamarkadetan zeharo aldatu den esparru bat: teknologia eta metodologia. Izan ere, sagardoa egiteko moduak ere bilakaera sakona izan du, kalitate handiagoko edaria

lortzeko bidean. Kalitate bermeak eta kontrol mekanismoak izan dira, bereziki, aldatu direnak. Adibidez, duela dozena bat urte, upeltegi teknikak ez zeuden oso landuak. Egun, laborategi batean baino gehiagotan aztertzen dira zukuak, osasun baldintzak betetzen dituzten eta nahasketak ondo egiten diren frogatzeko.

Bestalde, sagar mota eta osagarri ezberdinak nahastuz, oso sagardo ezberdinak lor daitezke, eta horretan ere zeresan handia izan dute, bai teknikaren garapenak, baita sagardogileen esperientzia zabalagoak ere. Sagardogile bakoitzak erabakitzen du zer erabili nahi duen sagardoa egiteko, eta ondorioz, edariak ezaugarri batzuk edo beste batzuk izango ditu.

● Federazio berri bat, elkarlana bultzatzeko

Euskal Herriko sagardoaren kontsumoa eta ekoizpena sustatu nahi dituzten elkarteek laster izango dute erreferente berri bat. Izan ere, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako sagardogile elkarten federazioa sortuko baita datozen aste edo hilabeteetan. «Oraindik xehetasun batzuk falta zaizkigu dena ondo prestatzeko, agiriak eta lege kontuak batez ere, baina oinarritzko arauak onartu ditugu jada», azaldu digu Uxarte sagardotegiko jabe zein Bizkaiko Sagardoa elkarteak presidentea.

Federazio berriaren helburu nagusia garbia da: hiru herrialdeetako sagardogileen arteko elkarlana sustatzea, erronka komunei modu bateratuan erantzuteko: «Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako elkarteak batuta aurkezte eta lan egitea da proiektu berri honen helburua. Azken batean, zeregin eta lan asko berdin-berdinak dira guztiontzat, eta

horregatik, sagardogintzaren prozesuan inplikaturak gaudenok, bertoko sagarra oinarri dugunok, bat egitea erabaki dugu», esan du Zamalloak.

Hasiera batean, Euskal Autonomia Erkidegoko sagardogileak soilik bilduko ditu federazio berriak, baina datozen urteetan, elkarlan hori Euskal Herriko beste herrialdeetara ere hedatzea aurreikusten dute proiektuaren sustatzaileek: «Etorkizunean, elkarlanerako gonbita Nafarroako sagardogileei ere zabaltzea pentsatu dugu. Puntu hori badago gure agendan. Baina uneotan, legalki, erkidego bereko elkarten arteko federazioak dira bideragarrienak. Horregatik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileen arteko elkar-tea sortuko dugu lehendabizi, eta gero, gail-nontzeko herrialdeekin ere harremanak sustatuko ditugu», laburbildu digu Bizkaiko sagardogileen buruak.

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Bizkaiko sagardoaren alde egin, anima zaitetz

Bernabete

Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Galicia

Etxebarria Sagardoa
Iñaki Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Galicia

Malgarrazaga Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Bizahumana

Laneko Koop
Leartibai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Isasi

Isasi Sagardoa
Rufino Isasi Arrieta
Tel.: 94 681 60 44

Uxarte

Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguen Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Uxarte Zornotza

Ape Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Marineta

Sebastiano Sagardoa
Anton Aresti Eiguren
Tel.: 94 684 26 42

Marineta

Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 80 40

Zamalloa

Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15



bizkaiko sagardogileak

«Gure ingurumarian, Basaburuan, eskasa izan da aurtengo uzta, baina sagardo bikaina aterata da»

IGNAZIO SORALUZE • Berueteko sagardogilea

GORABEHERA HANDIKO UZTA IZAN DA AURTENGOA, NAFARROAKO SAGARDOGILENTZAT. BAZTAN ALDEAN, ADIBIDEZ, SAGAR KILO UGARI JASO DITUZTE. BASABURUAN, ALTA, ESKASAGO IBILI DIRA, ETA KANPOTIK EKARRI BEHAR IZAN DITUZTE FRUITUAK, GALIZIATIK. HALA ETA GUZTIZ ERE, KALITATEA BERMATUTA DAGOELA AZALDU DIGU IGNAZIO SORALUZE, BERUETEO BEHETXONEA SAGARDOTEGIKO JABEAK. HAIN ZUZEN, BERTAN EGINGO DA GAUR AURTENGO TXOTX DENBORALDIAREN HASIERA EKITALDIA.



Nolakoa izan da aurtengo uzta?

Kalitateari dagokionez, oso sagardo ona izanen dugu aurtengo txotx denboraldian. Kantitateaz hitz egiten badugu, ordea, ezberdintasun handiak izan dira eskualdeen artean. Baztan aldean, adibidez, uzta oparoa jaso dute, baina gure ingurumarian, Basaburuan, nahiko eskasa izan da. Iaz alderantzizko egoera bizi izan genuen: Baztanen oso sagar tona gutxi jaso zituzten, eta Basaburuan, berriz, errekor guztiak hautsi genituen.

Kalitate oneko sagardoa izango dela diozu. Azalduko al diguzu hori?

Bai. Kalitatearen aldetik, lehen esan dudaz bezala, oso ona da aurtengo sagardo berria. Hala gertatu ohi da uzta eskasa denean. Litro gutxi, baina bikainak. Goxoa izanen dela argi dago, eguzkiak gogor jo duelako eta euri gutxi bota duelako. Alkohola ere izanen du, eta tanino aldetik ere ondo ibiliko dela dirudi. Hala adierazi digute, behintzat, gure kupeletan analisiak egin dituzten enologoek.

Eta zer gertatzen da, aurtur bezala, nahi beste sagar ez dagoenean?

Sagar nahikorik ez dugunean, kanpotik ekartzen ditugu. Galiziatik, normalean. Batzuetan, Normandiako fruituak ere erosten ditugu, baina gehienetan ez gara horren urrunera joaten.

Sagardo ekologikoa egiten duzue. Nolakoa da ekoizpen prozesua?

Behetxoneako sagardogileen apustua izan zen ziklo osoa bertan egitea; hau da, sagarrondoak landatu, sagar barietate propioak bildu eta, horrela, kalitatezko zukua egin. Lan handia eskatzen du horrek guztiak, baina nabaritzen da sagardoaren kalitatean. Bestalde, sagardoaz gainera, egungo sagardotegiek badute beste protagonista bat: txuleta erre. Horretan ere ahalegin handia egin

nahi izan dugu, eta behitegi propioa dugu; beraz, sagardotegian kontsumitzen den haragi kopuruaren ehuneko handi bat etxeko ukuiluetan hazitako txekorrekin osatzen dute. Eta jendeak badaki hori guztia baloratzen.

Lan handia eskatuko du horrek guztiak...

Jakina baietz. Prozesu osoa kontrolatzeko, behar-beharrezkoa da alor ezberdin asko menperatzea, abeltzaintza eta nekazaritza kontuekin batera: besteak beste, trazabilitate-sistemak eta kalitate arauak. Lehen, kontu horiek guztiak ezezagunak ziren sagardogile gehienentzat, baina orain, goitik behera ezagutu behar ditugu, zerbitzu on bat eman nahi badugu.

Nafarroan, bost sagardotegi «tolare» daude elkarte berean bilduta. Zerk desberdintzen ditu sagardotegi horiek?

Tolare elkarteak kide garen sagardogileen ezaugarri nagusia da sagardo propioa ekoizten dugula, eta ahal den heinean, bertoko sagarrekin egiten dugula. Iruñerrian, adibidez, badira sagardotegi anitz, baina sagardoa erosi egiten dute, ez baitira ekoizleak. Guretzat, onena sagardo propioa egitea da, kalitatearen bermea gure esku dagoelako. Zukua beste bati erositzen gero, horren menpe gelditzen zara. Ez duzu beste aukerarik. Izugarriko alde dago erosita-ko sagardoaren eta etxean egingakoaren artean.

Eta Nafarroan, ba al da sagardotegira joateko ohiturarik?

Bai, gero eta gehiago. Tolare elkartearen, dena den, zenbait ekimen antolatuta ditugu, gure proiektua ezagutzera emateko eta jendearen fidelotasuna lortzeko. Aurtur, adibidez, bonutxartel bat ateratu dugu txotx denboraldira. Datozen hilabeteetan, sagardotegi tolare guztietatik pasatzen diren lagunek dohainik izanen dute azken bazkaria.


LA CASONA
ASADOR - SIDRERÍA
Menú fin de semana 28€

Teléfono: 948 186 713 Fax: 948 186 715
www.restaurantelacasona.net

Pueblo Viejo
(BARAÑAIN)

Ignazio Soralue, Berueteko Behetxonea sagardotegian. Bertan eginen da gaur, urtarrilak 18, aurtengo txotx denboraldiaren ekitaldia.
Idoia ZABALETA | ARGAKZI PRESS

• NAFARROA •••

Sidrerías con denominación de origen para agrandar la calidad

Existen cinco sidrerías productoras o «tolare», que ofrecen sidra y carne de producción propia, con la vista puesta en ofrecer la máxima calidad

Nafarroa vive un auténtico auge de sidrerías. Hoy día podemos encontrar un lettero que diga "sagardotegi" en cualquier pueblo de Lizarralde, Iruñerria o incluso de Erribera. En muchas de ellas ofrecen el típico menú de sidrería (tortilla de bacalao, chuletón, queso con membrillo y nueces, todo ello regado generosamente con sidra de temporada) a un precio asequible y con una gran calidad. Sin embargo, hay una asociación que se caracteriza por cuidar al máximo todo el proceso de producción y por ofrecer productos elaborados en sus propios establecimientos. Se trata de la asociación Tolare, que agrupa a cinco sidrerías-productoras: Larraide, en Lekarotz; Linddurrenborda, en Lesaka; Martitxonea, en Aldatz; Behetxonea, en Beruete, y Toki Alai, en Lekunberri.

Adentrarse en cualquiera de estos cinco establecimientos supone ir atrás en el tiempo, para conocer de primera mano el proceso tradicional de elaboración de la sidra. Además de restaurantes, estos establecimientos comercializan su propia sidra embotellada, cada uno con su etiqueta identificativa.

Este año el txotx tiene lugar en la sidrería Behetxonea de Beruete, hasta donde acudirán representantes del resto de sidrerías y también personajes conocidos del mundo del deporte y de la cultura.

SIDRA ECOLÓGICA

En Lekarotz (Baztan), en la vertiente norte del Pirineo navarro, se encuentra la sidrería Larraide, junto a un terreno lleno de manzanos. La sidra de Larraide es ecológica y cuenta con el sello de garantía del Consejo de la Producción Agrícola

Ecológica de Nafarroa (CPAEN). Para su elaboración se utilizan diversos tipos de manzana, que le dan un toque ácido pero muy agradable.


En el pueblo de Lesaka, a unos 300 metros del caso urbano, encontramos la sidrería Linddurrenborda. También aquí recogen las manzanas de sus propios terrenos, aunque cuando no son suficientes acuden a productores cercanos de Bera, Igantzi, Arantzeta e incluso Oiartzun.

En el precioso valle de Basaburua, en la localidad de Beruete, podemos visitar una de las sidrerías "tolare" más recientes: Behetxonea. El establecimiento de Ignazio Sorraluze lleva once años produciendo sidra ecológica y ofreciendo un menú elaborado casi enteramente en sus terrenos, ya que cuenta con una explotación ganadera, además de varias hectáreas de manzanos.

UN CASERÓN DE 1650

La de Aldatz, en cambio, es una de las sidrerías más veteranas y con más solera. Se encuentra ubicada en un caserón de piedra que data del año 1650, y produce su propia sidra gracias a la gran cantidad de manzanos con los que cuenta al lado del establecimiento. Cuando la cosecha es insuficiente, trae las manzanas de Etxarri Aranatz o de Alegi.

Por último, tenemos la sidrería Toki Alai, en Lekunberri. Un gran comedor para 110 comensales nos dará la bienvenida, y podremos degustar un magnífico menú de sidrería, de la máxima calidad. Este establecimiento también es uno de los más recientes, ya que lleva elaborando su propia sidra desde hace doce años. Se encuentra abierto al público de enero a mayo, de viernes a domingo.



El escultor Juan Gorriti fue el encargado de dar inicio a la temporada de txotx del pasado año en Nafarroa, concretamente en la sidrería Martitxonea de Aldatz.
Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

Hostal Restaurante Sidrería "Casa Armendariz"



- Menú del día
- Menú de sidrería
- Carta: cocina tradicional

c/Navarro Villoslada, 19 • VIANA (Navarra)
Tf. (948) 64 50 78 • Reservas (948) 44 63 45

Sagardo kultura propioa aldarrikatzen dute Araban



Juanjo Peciña,
Aramaioako Iturrieta
sagardotegiako
arduraduna.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Aurtengo sagar uztza eskasa izan da Araban, kantitateari dagokionez. Zaporea, aldiz, beti bezain ona. Azken hamabost urteetan, ahalegin berezia egin dute herrialdeko zenbait ekoizleek (Iturrieta eta Trebiñu sagardotegiak, batez ere), bertoko sagarrek lan egiteko eta sagardo kultura propioa sustatzeko. «Sagardoa ekoizteko orduan, lehentasuna dute gure arboleak eta bertatik hartzen ditugun sagarrek. Aurtun, ordea, uztza nahiko eskasa izan da, eta horregatik, sagar gehiago ekarri behar izan ditugu», azaldu digu Juanjo Peciña Aramaioako Iturrieta sagardotegiako arduraduna. Sagar bila, alta, ez dira urrutira joaten. «Gure sagar propioekin nahikorik ez badugu, Arabako sagarrak erosten ditugu, eta gehiago behar iza-

tekotan, Gipuzkoatik ekartzen ditugu».

Arabako sagardo propioa egitea da ekoizle hauen xedea, eta bide horretan, hainbat zailtasun eta oztopo daudela onartu du Peciñak: «Gurea sagardo ekologikoa da, eta horrek zaintza handiagoa eskatzen du. Beste ekoizle batzuek gai kimikoekin konpontzen dituzte arazo gehienak, baina guk ez dugu halakorik egiten. Horren ordez, zaintza-lan estuagoa egin behar izaten dugu, kalitatea bermatzeko». Lan handiagoa egiteaz gainera, prozesua garestitu egiten dela nabarmendu digu Aramaioako sagardogileak. «Sagardo ekologikoa lortze aldera, ekoizle ekologikoengana jo behar dugu lehengaien bila. Prozesu osoaren kostua bikoiztu egiten du horrek».

Egun, hiru sagardotegiak osatzen dute Arabako Sagar eta Sa-

gardogile Elkarteak: Trebiñu sagardotegia, Askartza herria; Iturrieta, Aramaio; eta Borobia Sagardoa, Ozetan. Azken hori, ordea, ez da txotxeko sagardotegia, botilan saltzen baitu edaria. Hiru horietatik gainera, badira beste hainbat lokal ere, «sagardotegi» izena daukatenak, baina Juanjo Peciñaren esanetan, «jartetxe hutsak» direnak.

«Gasteiz inguruan dauden gehienak sasi-sagardotegiak dira. Sagardoa erosi egiten dute, beste tabernari batzuek garagardoa erosten duten moduan, eta ondoren saldu egiten dute. Guretzat, hori ez da bidezko kompetentzia. Guk ahalegin handiak egiten ditugu sagardoaren kultura propio bat sortzeko, eta horretarako, behar-beharrezkoa da sagardoaren prozesua ezagutaraztea, inguruko sagarrak erabiltzea... Baina kanpoko sagardoa saltzen

duten horiek oztopo bat beste-rik ez dira, ez baitakite ezer sagardoari buruz».

Sagardogilearen ustez, denboraldiaren hasierako txotxaren ekitaldiari ere zentzua kentzen diote sagardotegi horiek: «Sagardo berria nolako datorren dastatzea da txotx egitearen arrazoiak. Baina bai zukua bai kupelak kanpotik ekarriak badira, zer zentzu dauka horrek guztiak? Festa bat egitea? Arabako 'jet-set' delakoa eta pertsonaia famatuak jabetxe berean elkartzea? Tamalez, horretara mugatzen da, gaur egun, zenbait jabetxe eta hedabide handiek sustatu nahi duten txotx formatua».

OHITURA ZAHARRAK

Usadio eta moda berriak gorabehera, sagardoaren kultura pixkanaka ari da hedatzen Araban. Bizkaian eta Gipuzkoan dagoen adinako ohiturarik ez dagoen

arren, jendeak badu sagardorako joera. Ezin da ukatu Araban ardo dela nagusi, produkturik bikaina ekoizten baita herrialdean. Baina orain dela ehun urte, ardo sartu arte, sagardoa edaten zen Araban, eta baserri askotan egiten zen. Ondoren, ardo era bat gailendu zitzaion, eta Aramaio edota Askartzako ekimenak dira bizirik mantendu dutenak.

Aurtengo sagardoa dagokionez, «nahiko zapore ona» izango duela nabarmendu digu Peciñak. «Oraindik goiz da halako balorazioak egiteko –esan digu–. Zaila da esaten, kupel batzuk prest daudelako jada, baina beste batzuetan, hartidura edo fermentazioa polikiago gertatzen da».

Hil honen bukaera arte itxaron beharko dugu Arabako zuhaitzen fruitu goxoekin egindako sagardoa dastatzeko.

Txotx egin!!

Cenas con servicio de autobús

Iturrieta sagardotegia



Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com



**Arabian,
arabako
Sagardoa!**

Egin txotx!!

**TREBIÑU
Sagardotegia**

945 244 852-657 736 599
ASKARTZA-TREBIÑU



Gaur egun, sagardotegi dezente dugu Ipar Euskal Herrian. Lapurdin, adibidez, hamar bat badira; horietatik lautan, gainera, saltzaileak izateaz gainera, ekoizleak ere badira: Sagarmin (Baiona), Txopinondo (Azkaine), Beloki (Biriatu) eta Bordathio (Iatsu). Nafarroa Beherean ere, beste bi sagardogile ditugu: Eztigar (Donaixti) eta Aldakurria (Lasa). Urterotero, dozenaka lagun hartzen dituzte, txotx denboraldiaren barruan, eta jakin-min berezia sumatzen da sagardoaren inguruan. Baionan, esate baterako, Sagarno Berriaren Eguna ospatu ohi dute, otsaila aldera, baita Sagarno Eguna ere, maiatzaren bukaeran (azken horretan lortutako irabaziak inguruko ikastola eta herri elkarteak laguntzeko erabili ohi dira).

Batean zein bestean, musika eta festa giroa dira nagusi, fanfarre, dantza talde, konpartsa eta haur jokoekin. Euskal Herri osoko sagardogileak biltzen dira, eta azken hilabeteetan ekoiztutako edaria ematen dute dastatzera. Ipar Euskal Herriko sagardoaren festa handiak izan ohi dira.

Baina badira sagardoaren gozatzeko joeraren adibide gehiago. Apika-apika bada ere, sagardogile eta sagardotegi berriak ari dira sortzen, berpizte bidean den kultura baten adierazle. Alta, hori ez da beti horrela izan.

Garai batean, oso ohikoa zen Ipar Euskal Herriko landetxeetan sagardoa egitea. Nekazaritzaren intentsiboarekin, baina, inguruko zuhaitzak desagertzen hasi ziren, eta berauekin, baita sagardoa egin eta edateko ohitura ere. Araban gertatu bezala, Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean ere aldatu egin ziren ohiturak. Ardoak hedapen ikusgarria izan zuen, eta sagardoaren kontsumoak eta ekoizpenak, berriz, beherantz egin zuten etengabe. Sagarrondo asko bota egin zituzten, eta hainbat urtez, ez zen berririk landatu.

1990. urtean, alta, Sagartzea elkarteak sortu zen, eta urte gutxiren buruan, egoera zeharo aldatu zen. Etxaldeztaldeen ibili ziren, aiton-amonien inkestak eginez, eskualdeko sagar espezie ezberdinen inguruan. Guztira, zazpi espezie identifikatzea lortu zuten: anisa edo apez-sagarra, mamula, eztika, peatxa, eri-sagarra, gordin xuria eta ondo motxa. Denak ala denak Ipar Euskal Herriko espezie propioak. Bertokoak.

Informazio horrekin, zuhaitz zaharren txertoak egin eta berriak landatu zituzten. 30 bat laborari aritu ziren auzolanean, eta 1994. eta 1996. urteen artean, 16.000 sagarrondo berri landatu zituzten, sagardoa edo zukua egiteko, eta beste 7.000 edo 8.000, jateko fruituak lortzeko. Guztiak ala guztiak, Lapurdi eta Zuberoa arteko 30 etxaldetan. Lehen uztia 1999.



Azkaingo Txopinondo sagardotegian egindako txotx berezi bat, lazko udaberrian.

Nicolas MOLLO

• IPAR EUSKAL HERRIA ...

Sagardoa, Ipar Euskal Herrian berreskuratutako altxorrik preziatuena

urtean eman zuten zuhaitzok: orotara, 15 tona sagar.

Sagartzea elkarteak ezin zuen ekoizpen hori guztia saldu, eta beraz, bertako bazkide ziren 30 laborariak Eztigar kooperatiba sortu zuten 1996an. Oztibarre haraneko Donaixti herrian dute sagardotegia, baina botilaratutako sagardoa eta zukua ere saltzen dituzte, bai inguruko salto-


kietan, baita Hego Euskal Herriko sagardotegietan ere. Hiru dira ekoizten eta saltzen dituzten produktuak: sagardo idorra (Euskal Herri osoan edaten den sagardo mota), sagarno goxoa edo "demi-sec" (azukre eta gas apur batekin, Europako beste zenbait lurraldetan edaten denaren antzekoa) eta sagar zukua (anixa sagar barietatearekin egi-

na). Feria, azoka eta euskal elkarreetan saltzen dituzte hein handi batean.

Horrekin batera, formazio mintegiak eta ekitaldi bereziak ere antolatzen ditu Sagartzea elkarteak, betiere sagardoaren kultura ardatz hartuta. Sagarrondoen mozte ikastaroa, zuhaitz eta sagar espezie ezberdinen inguruko mintegiak,

txertaketari buruzko ikastaldiak... Landareak ere saltzen dituzte elkarteak kideek, inork sagarrondoren bat edo beste landatu nahiko balu.

Bi hamarkadaren buruan, beraz, Ipar Euskal Herriko sagardoa desagertzeaz egotetik inoiz baino osasuntsuago izatera pasa da. Urte askotarako izan dadila.



Petritegi

Evolución de la sidra a través de los siglos en Petritegi

Sagardoaren ekoizpenaren bilakaera mendeetan zehar

943 457 188 - 943 472 208 • PETRITEGI BIDEA, ASTIGARRAGA
WWW.PETRITEGI.COM

El menú de sidrería se disfruta con todos los sentidos

• DEGUSTACIÓN •

Uno de los mayores placeres de las sidrerías es la oferta gastronómica. Muchos degustan los preciados alimentos de una forma casi inconsciente, sin pararse a analizar de una forma mínimamente crítica las cualidades de lo que ingieren y sin ser capaces de describir sus cualidades. El doctor Iñaki Alava, director de I+D de Basque Culinary Center, invita a valorar y disfrutar ese menú de sidrería.

Comer disfrutando o comer sin más, dos opciones a la hora de situarse ante una buena vianda. Podemos realizar, como no!, una cata hedonista, es decir, basada en la búsqueda del placer. El filósofo griego Epicuro de Samos defendió una doctrina basada en la búsqueda del placer, eso sí, dirigida por la prudencia. Afirmó que ningún placer es malo en sí, el inconveniente puede estar en los medios que se utilizan para alcanzarlo. En el caso de la degustación de un menú de sidrería, la invitación está dirigida a tratar de cuantificar el placer que puede ofrecer un buen bacalao, una jugosa chuleta o una refrescante sidra, porque no hay que olvidar que esta bebida natural es un perfecto complemento a la satisfacción de comer. ¿O es al revés?

Un catador analítico analiza con detalle el placer obtenido. Para ello se sirve de algunos instrumentos, como el propio cerebro, que tiene archivada



El chuletón a la brasa es típico del menú de sidrería. Conocer los diversos matices de los ingredientes permite apreciar mejor sus cualidades.

Idoia ZARALETA / ARGAZKI PRESS

en su memoria experiencias anteriores y que cada vez que catamos de forma inconsciente, compara. Por esos somos capaces de discernir si una chuleta o una sidra son peores o mejores que otras degustadas con anterioridad. Lo hacemos simplemente con un análisis sensorial, que incluye una inspección visual, una olfativa, una degustativa en boca que constata los sabores dulces, salados, ácidos, amargos... y finalmente con la sensación de que lo que catamos está a una temperatura correcta.

En esa cata hedonista tenemos la posibilidad de utilizar unos instrumentos, algunos conocidos, que están al alcance

de todos: son los descriptores. Todas las bebidas y comidas los tienen. Así, la sidra tiene un buen número que pueden considerarse físicos, entre ellos los que podemos apreciar en el momento de escanciar, como el espalme, aguante y pegue de la txinparta se aprecia en el vaso; la viscosidad de la bebida o la temperatura. Visualmente podemos poner nuestra atención en el color (pálido, rojizo, oscuro, claro, limpio... Los aromas pueden ser frescos, con olores a manzana, a flores, a cítricos... El gusto nos permitirá discernir si es una sidra equilibrada, ácida, dulce, con sabores a kupela, a manzana... u otros de origen

químico, como olores a fermentación, a levaduras fenólicas... El análisis crítico de casi todos estos descriptores está al alcance general.

NUMEROSOS MATICES

El mismo proceso podemos hacerlo con el bacalao en salsa, en tortilla, la chuleta o el queso. Los descriptores físicos del bacalao serían el tipo de corte (lomo, cola, filete, kokotxa...); el color (blanco, rojizo, oscuro...); el sabor (salado, ácido, graso, aguado...), junto a otros químicos o los relacionados con la textura (fibroso, tierno, laminado, pasado, quemado...).

Los de la chuleta serían el tipo de corte y procedencia (lo-

mo alto o bajo); el color (rojo, rosa, quemado...); la estructura (terneza, distribución de grasa y cartilagos, jugosidad...); el sabor (persistente, salado, soso, graso, aguado...) o los descriptores químicos y los relacionados con la textura (fibroso, tierno, rancio...).

No se trata de ponernos trascendentes, analizando de forma exhaustiva todo lo que comemos y bebemos, pero sí de hacerlo de una forma consciente y crítica para disfrutar más y mejor, de dar un paso más en la búsqueda del placer. Sin duda, disfrutaremos más cuanto más capaces seamos de distinguir los diferentes matices de los ingredientes del menú.

GURUTZETA SAGARDOTEGIA, BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATUREALEAN



EGUNERO IREKITA, EGUERDIA ETA GAUEZ. IGANDETAN EZIK.

* 20€ menua astelehen, astearte eta ostegun gauetan.

* Asteazkenetan otxotea kantuz.

* Enkarguz eskatu daitezkeenak: Bakailoa saltsan, kostila,

Wagyu arrazako txuletak, (munduko haragi onena kontsideratua)

Gurutzeta Sagardotegian. Oialume Bidea. Astigarraga. Gipuzkoa.

Tel./Faxa: 943 55 22 42 • e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

